

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 200.000 € jarriko ditu dibertsitatea, biktimak, bakea eta bizikidetzaren arloan elkarrekin eta tokiko erakundeek jarduerak egin ditzaten

Bi deialdietara eskaerak aurkezteko epea martxoaren 14an amaitzen da

Asteartea, 2019.eko otsailak 12

Nafarroako Gobernuak guztira 200.000 € jarriko ditu tokiko erakundeek eta irabazi asmorik gabeko elkarrekin dibertsitatea, biktimak, bakea eta bizikidetzaren arloan 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 1era bitarte jarduerak egiteko. Deialdietara eskaerak aurkezteko epea martxoaren 14an amaitzen da.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira asteartean bi deialdiak, eta bi kasutan Gobernuak aurrekontuaren %100era bitarte finantzatu luke; hots, jarduera bakoitzeko gehienez 8.000 euro.

Lehen deialdia, 70.000 eurokoa, irabazi asmorik gabeko elkarrekin eta erakundeentzat da, eta horren helburua da 1936ko kolpe militarreko eta ondorengo errepresio frankistaren biktimak edo terrorismoaren biktimak errekonozitzeko, erreparatzeko eta haiekiko solidaritatea izateko ekitaldiak egitea. Modu horretan, egia, justizia eta erreparaziorako ekarpena egingo da, horiek biktimen eskubideak izanik, eta herritarrentzat irekitako jarduerak izango dira; hala nola, erakusketak, foroak, hitzaldiak, eztabaidak eta topaketak. Horien bitartez, ondorengoak sustatu eta bultzatu ahal izango dira: bakea eta bizikidetzaren balioen gaineko hausnarketa eta kultura arteko eta erlijio arteko topaketa, erakundeen web orrialdeak egokitzea eta modernizatzea; plangintza, diagnostikoak eta prestakuntza bizikidetzaren eremuan; eta deskribatzeko instrumentuak antolatzeak eta sortzeko proiektuak (inbentarioak edo katalogo informatizatuak); eta memoria historikoarekin eta/edo berriarekin loturiko artxibo-dokumentuen digitalizazioa, elkarrekin edo erakundearenak.

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira Nafarroako Gobernuaren web atariko izapideen katalogoan [dagokien fitxan](#), [Nafarroako Gobernuaren edozein erregistroan](#), [Erregistro Orokor Elektronikoan](#) edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako edozeinetan, asteazken honetatik martxoaren 14ra bitarte, hori barne.

Bigarren deialdia Nafarroako tokiko erakundeentzat da, eta 130.000 euroko aurrekontu-zuzkidura du. Deialdi honetan ere epea bera da, martxoaren 14ra bitartekoa, eta Nafarroako Gobernuaren izapideen katalogoko [fitxaren](#) bitartez eta, presentzialki, lehen deialdian aipaturiko lekuetan aurkez daitezke.

Tokiko erakundeek zuzendutako prozeduraren helburua da honako hauetatik eratorritako inbertsioak finantzatzea: oroitzapenezko elementuak

(plakak, panelak, monolitoak, e.a.) jartzea 1936ko kolpe militarreko eta ondorengo errepresio frankistaren biktimak oroitzeko eta errekonozitzeko; oroitzapenezko elementuak (plakak, panelak, monolitoak, e.a.) jartzea terrorismoaren biktimak gogoratzeko eta errekonozitzeko; eta espazio publikotik ikur eta elementu frankistak kentzea, 33/2013 Foru Legean ezarritakoaren arabera. Halaber, herritarrek parte hartzeko jarduerak antolatzen eratorritako gastuak finantzatu dira; hala nola, erakusketak, foroak, hitzaldiak, eztabaidak eta topaketak, bakea eta bizikidetzaren balioen gaineko hausnarketa eta kultura arteko eta erlijio arteko topaketa sustatzeko eta bultzatzeko balio dutenak; eta, hirugarren, udal-eremuan kulturartekotasuna osorik kudeatzeko planak, prestakuntza eta/edo jarduerak estrategikoak diseinatzetik eta abian jartzetik eratorritako gastuak finantzatu dira.